

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1497

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 13koa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baita Ingurumen sailburuordearen 2002ko ekainaren 4ko Ebazpena, Ortuellako udalerrian (Bizkaia) Orconerako Eraikuntzako eta Eraispeneko Hondakinak Birziklatzeko Planta eraikitzeako Proiektuaren Ingurumenaren gaineko Eraginaren Deklarazioa adierazten duena.

AURREKARIAK

2002ko ekainaren 4an, Ingurumen sailburuordeak Ortuellako udalerrian Orconerako BTB eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak birziklatzeko planta eraikitzeako proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin zuen, eta 2002ko uztailaren 5eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

2022ko uztailaren 28an, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariak ebazpena eman zuen Ingurumen sailburuordearen 2002ko ekainaren 4ko Ebazpena aldatzeko. Azken ebazpen horren bidez, hain zuzen, Ortuellako udalerrian Orconerako BTB eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak birziklatzeko planta eraikitzeako proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin zen eta 2022ko irailaren 7ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen. Ebazpenaren bidez aldatu egin ziren erreferentziako proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpenean jasotako airearen kutsaduraren gaineko baldintzak.

2022ko azaroaren 30ean egin zen Ortuellako udalerrian Orconerako BTB eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak birziklatzeko planta eraikitzeako proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena zarata kontrolatzeari lotuta aldatzeko eskabidea.

Ingurumenaren zaintza programan jasotzen diren emaitzak aintzat hartuta justifikatu da aldatzeko eskabidea.

Eskaera ingurumen-inpaktuaren adierazpena aldatzeko prozeduraren esparruan egin da, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 44. artikuluan araututakoaren arabera.

Artikulu hori betez, 2022ko abenduaren 5ean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsultak egiteko izapideari ekin zion.

Halaber, espedientea jasotzen duen dokumentazioa eskuragarri egon zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, interesdunek egoki iritzitako ingurumen-arloko oharrak egin zitzaizkien.

Jasotako txostenak aztertu ondoren, egiaztatu da ingurumen-organoak nahikoa irizpen-elementu dituela indarrean dagoen ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren baldintzak aldatu behar diren ala ez erabakitzeke, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 44. artikuluen arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 44. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren baldintzak aldatu ahal izango dira

baldin eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenak ezarritako baldintzak betetzea ezinezkoa edo alferrikakoa bada, aldaketa eskatutako unean eskura dauden teknika berri eta hobeen erabilpenak bideratzen duelako ingurumena hobeto eta egokiago babestea, hasieran ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egindako proiektu edo jarduerak baino, edo baldin eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena betetzen dela egiaztatzeko jarraipena egitean detektatzen bada prebenitzeko, zuzentzeko edo konpentsatzeko hartutako neurriak nahikoak ez direla, beharrezkoak ez direla, edota eragin-korrek ez direla.

Ingurumen organoaren iritziz, Ortuellako udalerrian Orconerako BTB eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak birziklatzeko planta eraikitzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena aldatzeko eskaera egokia da, Ingurumenaren zaintza programan lortutako emaitzetan oinarrituta dagoelako, 2002ko ekainaren 4ko Ebazpenaren 2.E puntuan jasotzen den bezala.

Espedientean jasota dauden dokumentazio teknikoa eta txostenak aztertu ostean, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak, hau da, organo eskudunak (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren arabera) ebazpen hau eman du, Ingurumen sailburuordeak 2002ko ekainaren 4ko Ebazpenaren bidez emandako ingurumen-inpaktuaren adierazpeneko atal batzuk aldatzeko asmoz. Azken ebazpen horren bidez Ortuellako udalerrian Orconerako BTB eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak birziklatzeko planta eraikitzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin zen.

Honako hauek aztertu dira: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena, eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2.d.4. apartatua kentzea («Zarataren kontrola» izenekoa) Ingurumen sailburuordearen 2002ko ekainaren 4ko Ebazpenetik. Ortuellako udalerrian Orconerako BTB eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak birziklatzeko planta eraikitzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin da ebazpen horren bidez.

Bigarrena.– Proiektuaren sustatzaileak ingurumen-organuari jakinarazi beharko dio, organo substantiboaren bidez, jarduerari dagokionez ezarritako baldintza aldatzen hasteko data.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 13a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,
JAVIER AGIRRE ORCAJO.